

Loreak asmatzen: Naturzale europarrak Euskal Herrian

Gipuzkoako Foru Aldundiarena den Zumalakarregi Museoaren eta Cristina Enea Fundazioaren ekimena da erakusketa, zenbait italiar kultur eta hezkuntza instituzioen lankidetzarekin: Bolognako Museo del Risorgimento eta beste zenbait.

Erakusketa honek, XIX. mende erdialdean, Euskal Herriko landareak bildu eta marraztu zituzten bi naturzale elkartzaren ditu. Pietro Bubani, bizitza Piriniotako landareak jaso eta aztertzen eman zuena, gurean 1841 eta 1879 artean zenbait ibilbide egin zituen, beti ere bere herbarioarentzat landareak jasotzeko helburuz. Didier Petit de Meurville, 1857.etik aurrera Frantziako kontsula Donostian, bere zaletasunen artean pintura eta landareekiko maitasuna elkartu zituen, zeinen emaitza Gipuzkoako florari eskainitako hiru album izan ziren.

Bi pertsonaiak denbora eta espazioan batera egokitzeak eta bien landareekiko maitasuna uztartzeak erakusketa hau antolatze bidea eman digu. Bertan gure XIX. mendeko flora zientzia eta artearen aldetik aztertze bidea izan dugu, bidebatez garai hartako gure herriaren egoera aipatu eta Pirinioen inguruan sortutako, bai ikertze zein gozatzeko interesaren aipua ere egin dugu.

Erakusketak bi naturzale hauek landutako materiala hiru modutan aurkezten du.

Landare bakarraren fitxa osatua eskainiz batzutan, Bere erabilera ardatz hartuta besteetan (sukaldaritzan, kosmetikan, mitologian edo sendabelar gisa) eta Agertzen diren tokien arabera azkenik. Landareen izenak ere informazio ugari eskaintzen digute eta batzutan aldaketa klimatikoaren garapena aztertze ere balio dezakete.

Erakusgai dauden materialen artean, azpimarratzekoak dira 4.000 landare baino gehiagori buruzko informazioa biltzen duen Bubaniren lan ospetsua, bera hil ostean argitaratua, Gipuzkoako florari buruzko Didier Petit de Meurvillen albumak, baita argazkiak, eskuizkribuak, pirineoei buruzko argitalpenak eta mapak ere.

Erakusketaren eta piezen ikerlana Zumalakarregi Museoaren eta Bolognako "Museo del Risorgimentoren" arteko lankidetzaren emaitza da.